II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Garraio Partzuergoa

Xedapen Iragankorra baten bitartez, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen Zerga-Ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onespena ematearen iragarkia.

2025eko urtarrilaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 4 zenbakian, argitaratu da «Bizkaiko Garraio Partzuergoko tituluen erabiltzaileei bidaiarien garraio publikoa emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala» aldatzeko behin-behineko erabakia jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematen dion iragarkia, xedapen iragankor bat sartuz, eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluarekin bat etorriz, bost (5) eguneko epean jendaurrean egon ondoren eta Kontseilu Nagusiak 2025eko otsailaren 19an egindako bileran behin-behineko erabakiaren aurka aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, aipatutako Ordenantzan behin betiko onartutako aldaketen testu osoa argitaratzen da:

Bilbon, 2025eko otsailaren 19an.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García

eek: BAO-2025a035-(II-981)

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA

Xedapen Iragankorra

Hiri barruko eta hiriarteko lurreko garraio publiko kolektiboaren erabilera sustatzen jarraitzeko helburuarekin, betiere, ekainaren 25eko 11/2022, abenduaren 27ko 20/2022, ekainaren 28ko 5/2023 eta abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuek ezarritako ibilgailu partikularra baino garraiobide seguruagoa, fidagarriagoa, erosoagoa, ekonomikoagoa eta iraunkorragoa lortzeko aldaketa sustatuz, ordenantza fiskal honen 4.1 eta 4.2 artikuluetan jasotako zerga-kuotak %50 murriztuko dira 2025eko otsailaren 20tik 2025eko ekainaren 30era bitarteko aldirako.

Aurreko neurriaren indarraldia amaituta, eta indarrean dagoen urtarrilaren 28ko 1/2025 Errege Lege Dekretuaren bidez, ibilgailu pribatuaren erabilera garraio publikora aldatzea sustatzeaz gain, Energia eta Klima Plan Integratuan (PNIEC) ezarritako helburuak lortzea bultzatu nahi da, trasbase modalaren eta deskarbonizazioaren arloan, ingurumenaren ikuspegitik jasangarriagoak diren irtenbideen bidez:

— Ordenantza honen 2. artikuluan aipatzen den 12 urtetik beherakoentzako salbuespena 14 urtetik beherakoentzat izango da, 2025eko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean.

— Ordenantza fiskal honen 4.1 eta 4.2 artikuluetan jasotako GAZTE tituluei dagozkien zerga-kuotak %50 murriztuko dira 2025eko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean.

— Ordenantza fiskal honen 4.1 eta 4.2 artikuluetan GAZTE tituluaz bestelako tituluei buruz jasotako zerga-kuotak %40 murriztuko dira 2025eko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean.

Aldaketa hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta bere artikuluetan berariaz ezarritako ondorioak sortuko ditu.

eek: BAO-2025a035-(II-981)